

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 2907

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita jarduera bertan behera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat.*

Garraiolari autonomoen adin handia da errepidez egiten den garraio publikoaren sektoreari eragiten dioten problemetariko bat. Hori dela-eta, sail honek uste du egoki dela adin handiko profesionalek lanbidea bertan behera uztea sustatzea, hain zuzen ere errepide bidezko garraio publikoaren sektorean bizitza profesional gehiena egin duten profesionalei dagokienez; eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.

2018. ekitaldian, honako sektore hauei erantzungo zaie: ibilgailu arin eta astunetan errepidez egiten den salgaien garraio publikoa; eta autobusez egiten den bidaiarien garraio publikoa; izan ere, sektore horietan, adin handiko garraiolari askok ez dute beharrezko baliabiderik jarduera bertan behera uzteko, eta, beraz, aipatutako laguntzek gizarte-funtzioa egiten dute. Halaber, garraiolari hauek sartuko dira: ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua dutenak, eta bai baliarezintasun handia aitortua dutenak ere.

Aurrekontu-kreditu nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legean.

Herritarrei Administrazioarekin dituzten harremanak errazteko, eta laguntzen barne-kudeaketa eraginkorrago egiteko, prozedurako izapideak telematikoki egiteko aukera ematen duen aplikazio bat egin da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluari jarraituz. Aginduan izapidetze telematikoko horren xehetasun guztiak jaso dira.

Laguntza-programa hau Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko otsailaren 15eko Aginduaren bidez onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota dago. Euskal Autonomia Erkidegoko helburu, estrategia eta jarduera-lerroekiko kontsekuentea da laguntza-programa hau, hain justu ere garraio-sektorearen funtsezko elementuari –garraiolariari– eragiteari dagokionez.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zuten duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua ematen didan aginpidea erabiliz, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutakoaren– VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ordaindu beharreko laguntza eta diru-laguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan harturik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Agindu honen helburua honako erregimena arautzea da: bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektoreko adin handiko garraiolariak, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortu-

tua dutenek eta baliaezintasun handia aitortua dutenek lanbidea bertan behera uztea sustatzeko laguntza-erregimena (2018. urtea).

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak emateko ehun eta laurogeita hiru mila eta zazpiehun eta berrogeita hamar (183.750,00) euroko diru kopurua baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako kontu-sailetatik hartuta.

Adierazitako zenbateko globala gehitu ahal izango da, betiere diru-laguntzak esleitzeko prozedura ebatzi baino lehen, aurrekontua loturaren arabera kontuan izanik eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa; eta horretarako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko beste programa batzuk exekutatzetik ondorioztatzen aurrekontu-baliabideak edo aurrekontu aldaketak onartzearen ondoriozko baliabideak erabili ahal izango dira. Zirkunstantzia hori jazoz gero, Garraio Plangintzaren zuzendariaren ebazpen bidez hura publiko egingo da.

2. artikulua.– Pertsona onuradunak.

Eskabideak aurkezteko datan edo, egoki bada, 2018ko urtarrilaren batean, honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke agindu honetan araututako laguntzen onuradunak:

a) 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) 63 urtetik 64 urtera (biak barne) bitarteko adina izatea, edo ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izatea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren erabakia onartuz pentsioaren onespen data esanez.

c) Azken hamar urteetan etenik gabe, gehienez ere hiru kopiarekin autobusaren bidezko bidaiarien edo salgaien garraio publikorako indarreko baimen baten titular izatea; edo bi horiek batera izatea, gehienez ere hiru kopiarekin. Baimen hori sekula eten gabekoa izan beharko du, eta gutxienez indarreko kopia bat izan beharko du. Hala ere, baimenaren titulartasunean edo indarraldian eten bat permitituko da, gehienez ere hiru hilabetetik pasako ez den epe batez. Ondorio horiei dagokienez, eskabidea aurkezterakoan birgaiturik badaude, bisatu falta dela-eta iraungitako baimenak indarrean izan direla ulertuko da. Laguntza ematea eragiten duen baimenak indarrean egon behar izango du egoera hauen onarpenera arte, ezintasun iraunkor absolutua, osoa edo baliaezintasun handia denean.

Trakzio propiodun ibilgailuei (barne direla TD motakoak) dagokienez, 2007ko apirilaren 16a baino lehen, onuradunaren titulartasunpeko diren baimenak, salgaien garraio publikorako direnak, zehazki, estatuko, eskualdeko edo tokiko eremukoak direnak baimen baten kopia gisa zenbatuko dira.

Onuradunaren titulartasunpeko ibilgailuari dagokionez, 1998ko uztailaren 1a baino lehen bidaiarien garraio publikorako diren baimenak, zehazki, estatuko, eskualdeko edo tokiko eremukoak direnak baimen baten kopia gisa zenbatuko dira.

d) Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egotea, hain justu ere azken hamar urteetan etenik gabe; gehienez ere, hiru hilabetetik pasatzen ez den eten bakarra onartuko da.

Ezintasun iraunkor absolutuak edo osoak edo baliaezintasun handiak eragiten dien eskatzaileen kasuari dagokionez, halakorik aitortu zainetik hara zenbatuko da aipatutako hamar urteko epea.

e) 2018ko azaroaren 30a baino lehen, errepidez bidaiariak edo salgaiak garraiatzeko jarduera bertan behera uzteko konpromisoa hartzea; betiere, bere titulartasunpeko garraio-baimenei behin

betiko uko eginez. Jarduerarik berriz ekinez gero, jasotako laguntzak edo tokatzen diren interesak itzultzeko obligazioa izango du.

f) Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penalik edo administratiborik ez izatea, ez eta horretarako legezko inolako debekurik ere (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

h) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedaturikoa betetzea.

3. artikulua.– Laguntzen izapidetzea.

1.– Laguntzen izapidetze elektronikoa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan arautzen da.

2.– Pertsona fisikoek baliabide elektronikoen bidez egin ahal izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak. Pertsona juridikoek baliabide elektronikoen bidez egin behar izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoa erabiltzeko zehaztasunak euskadi.eus-eko atal honetan jarriko dira: <http://www.euskadi.eus>

Pertsona fisikoentzat, eskabidea egiteko eta agiriak aurkezteko bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzeak ez du esan nahi, prozeduraren hurrengo izapideetan horiek erabili behar direnik; aitzitik, edozein momentutan aldatu ahal izango da horien erabilera.

4. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Pertsona fisikoaren kasuan, eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Garraio Plangintzaren Zuzendaritzari zuzendu ahal izango zaizkio (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz); eta bertatik bertara, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuetan aurkeztu ahal izango dira; edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan aurkeztu ahal izango dira; betiere, normalizatutako arauzko orrian eta behar bezala beteta. Eskabidearen eredia agindu honen eranskinean dator, eta garraioen arloan eskumena duen organoak euskadi.eus-en barruan duen egoitza elektronikoa ere eskuratu ahal izango da.

Era berean, baliabide elektronikoa ere erabili ahal izango dira eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko. Informazioa, prozedura eta eskakizunak egiaztatzeko era garraioen arloan eskumena duen organoaren egoitza elektronikoa jarriko dira eskura, 3. artikuluan izapidetze elektronikorako aurreikusitako zehaztapenetan garatutako prozedura eta jarduketei jarraituz. Eskabidearen ondorengo izapideak, baliabide elektronikoa erabiltzekotan, [www.euskadi.eus/nirekudeaketak](http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak) webgunearen bidez egingo dira.

Pertsona juridikoaren kasuan, deialdi honetako eskaerak, eskakizunak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bakarrik egin behar izango dira baliabide elektronikoen bidez.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Aginduan araututako laguntzak eskuratzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabide-orria, behar den moduan beteta.
- b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- c) Eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik dagoela egiaztatzeko agiria, noiztik erroldaturik dagoen jasotzen duena.
- d) Azken hamar urteetan etenik gabe, autobusaren bidezko bidaiarien edo salgaien garraio publikorako indarreko baimen baten titular izan dela egiaztatzeko agiria, gehienez ere hiru kopia-ekin, Foru Aldundiak emana, edo, halaber, bi horiek batera izatea, gehienez ere hiru kopiarekin.
- e) Azken hamar urteetan etenik gabe, Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egon izanari buruzko egiaztageria.
- f) Beharrezkoa bada, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izateari buruzko egiaztageria.
- g) Aukerakoa, eta diru-laguntza eman eta gero aurkez daiteke, hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Ekonomia Sailak ezarritako ereduaren arabera; betiere, lehen-gez aurkezten diren edo banku-datuak aldatuak dituzten eskatzaileei dagokienez, beti laguntzak ordaindu baino lehen.

4.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea eta beharrezko dokumentazioa. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturiko hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Eskabideak aurkeztearekin batera, eskatzaileak berariaz onartu ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak dokumentazioaren zati bat eskuratzeko edo egiaztatzeko aukera, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

6.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik behar, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz. Hala ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena eta, orduan, diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztu behar ditu.

7.– Ondoren zehaztuko diren betebeharrak egiaztatzeko aski izango da erantzukizunpeko adierazpena eskabidearekin bat aurkeztea; eredia eskabidearekin batera dator:

- a) Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabideren bat eskatu dela eta, jaso bada, administrazio edo ente publikoek nahiz pribatuek emanik, horren berri ematea.
- b) Ez egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan sartuta. Eskatzailea prozedura horietan sartuta egotekotan, diru-laguntzaren ematea edo ordainketa itzultzeko edo zigortzeko prozedurak amaitu arte baldintzatua geratuko da.

c) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzearagozten duen zehapen penalik edo administratiborik jaso ez duela eta horretarako legeko inolako debekurik ez duela agertzen dituen (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren araberrako sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, gerta daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboan kaltetan izan gabe.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidea behar bezala balioesteko beharrezko jotzen duen beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du.

5. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ardura izango da Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

6. artikulua.– Agirien gaineko okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriek agindu honetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, okerrak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, bere eskaria besterik gabe atzera botako duela, ebazpen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran.

7. artikulua.– Zenbatekoa.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen zenbateko gorenak honako hauek izango dira:

a) Garraiolariari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion sei hilabeteko epe bakoitzeko lau mila eta ehun (4.100) euro; ibilgailu astunez egindako salgaien garraio publikoari eta autobusez egindako bidaiarien garraio publikoari dagokienez.

b) Garraiolariari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion sei hilabeteko epe bakoitzeko bi mila eta seiehun (2.600) euro; ibilgailu arinez egindako salgaien garraio publikoari dagokionez

c) Ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua duen edo baliaezintasun handia aitortua duen garraiolariari hamar mila (10.000) euro.

2. artikuluko gainontzeko betekizunez gain, adinarena eta ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortu izatearena betetzen dituzten onuradunek kopuruz handiena den laguntza jasoko dute.

2.– Sei hilabeteko osoen zenbaketa 2018ko ekainaren 1etik hara egingo da. Aipatu datan, sei hilabete oso baino gutxiago falta badira hirurogeita bost urte betetzeko, ez da emango laguntzarik.

3.– Agindu honen 1.2 artikuluan ezarritako diru kopurua aski ez bada aurkeztutako eskabide guztiei artikuluko honen 1. puntuan jasotako gehieneko laguntza ordaintzeko, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean banatuko da dirua. Banaketa egiteko, bakoitzari eman beharko litzaiokeenak guztiei eman beharrekoarekiko izango lukeen proportzio berari eutsiko zaio.

## 8. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honekin bat emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste pertsona juridiko eta fisiko batzuek emandakoekin.

## 9. artikulua.– Diru-laguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.– Diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ebazpenaren bidez emango dira. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta, beraz, hilabeteko epean gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio administrazio bereko Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako modua erabiliz, eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak izaten dituen egunetik hasita. Ebazpen horrek zehaztuko du diru-laguntza ematen den ala ukatu egin den; aldekoa bada, onuraduna zein den eta zenbat eman zaion azalduko da, eta kontrakoa bada, ukatzeko arrazoiak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan ez bada jakinarazten laguntzak esleitzeko ebazpena, eskabideak ezetsiak izan direla ulertu ahal izango dute interesdunek, 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez.

3.– Laguntzak esleitzeko prozedura amaitzeko ebazpena interesdunei jakinarazteaz gain, onuradunak eta emandako zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Agindu honetan berariaz aurreikusi gabekoari dagokionez, honako hauen bitartez eraenduko da diru-laguntzak emateko prozedura: 39/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta diru-laguntzari buruzko oinarritzako araudia, hau da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hau garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

## 10. artikulua.– Ordainketa.

1.– Laguntza emandakoan, onuradunak jarduera laga duela egiaztatzen badu, laguntza osorik ordainduko da, baina hark honako betekizunak konplitu beharko ditu:

Laguntzaren onuradunak uko egin beharko die honako hauei: laguntza ematea eragin zuen baimenari edo baimenei, eta bai bidaiarien eta salgaien garraio publikorako dituen ere; betiere baimen horietan baja hartu izana egiaztatuaz.

Enpresari legez garraio-jarduera behin betiko lagatzeko konpromisoa hartu beharko du, eta, halaber, bere gaikuntza profesionala beste garraio-enpresa bati ez ematekoa ere.

Baimendutako gehieneko 3.500 kg-ko masatik gorako ibilgailuak edota autobusak gidatzeko baimen balioduna badu, trafiko zuzendaritza egokian uko egin behako dio hari; eta hori, gida-baimen berriaren kopia konpultsatuen bitartez justifikatu ahal izango da.

2.– Diru-laguntza eskuratzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak 2018ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

### 11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan azaltzen diren diru-laguntzak eskuratzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte kasu guztietan:

a) Diru-laguntza eskuratzeko beharrezko diren eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko diote diru-laguntza eman behar duen Administrazioari.

b) Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Diru-laguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso, eta hamabost eguneko epean onuradunek idatziz uko egiten ez badiote, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Diru-laguntza, eman zaion horretarako erabili beharko du.

d) Helburu bererako beste laguntza edo diru-laguntzaren bat lortu badu, lortu duela eta nork eta zenbat eman dion jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Ekonomiararen Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzari.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

f) Diru-laguntzen onuradunen betebeharrak eta diru-laguntzen publizitatearen inguruan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 18. artikuluetan ezarritakoa bete.

2.– Artikulu honen 1.e) puntuan adierazitako organoen ahalmena gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Ekonomiararen Garapen eta Azpiegitura Sailak diru-laguntza jaso duen jarduerari buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

### 12. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, edo helburu bererako, onuradunak beste administrazio batzuek edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen baditu, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen jarraitzen badu.

### 13. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

Onuradunak agindu honetan, diru-laguntza emateko aginduan edo aplikatu beharreko gainerrakoa arauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, organo aginpidedunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu du, eta, halakorik izanez gero, dagokion diru kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzera behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta diru-laguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauak ezarritakoa betetzeko. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, eta kalteengatik ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

Halaber, itzultze-arrazoen inguruan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoa aplikagarria izango da; kasu honetan jasotako zenbatekoak, osorik edo partez, eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 16a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.



## ERANSKINA

## JARDUERA BERTAN BEHERA UZTEKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDE-EREDUA

## I.– IDENTIFIKAZIOKO DATUAK.

## a.– TITULARRA.

Lehen abizena: ..... Bigarren abizena: .....

Izena: ..... NAN/AIZ: .....

Jaioteguna: ..... Helbide elektronikoa: .....

Telefono-zenbakia: ..... Faxe: .....

edo

IFZ/IFK: .....

Erakundearen izena: .....

## b.– ORDEZKARIA.

Lehen abizena: ..... Bigarren abizena: .....

Izena: ..... NAN/AIZ: .....

## II.– HELBIDEA

Helbidea: .....

Probintzia: ..... Udalerria: .....

Posta-kodea: .....

## III.– ESKABIDEAREN HELBURUA.

Laguntza-mota:

- Ibilgailu astunetan salgaien garraio publikoa.
- Ibilgailu arinetan salgaien garraio publikoa.
- Autobusez bidaiarien garraio publikoa.
- Ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia.

## IV.– JAKINARAZPENERAKO DATUAK

Jakinarazpena egiteko kanala (x batekin markatu egindako aukera):

- Telematikoa.
- Posta (bakarrik pertsona fisikoak).

Telematikoa bada:

Ohartarazpenak:

Posta elektronikoa: .....

SMS: .....

## V.– JAKINARAZPENAREN DATUAK ZER HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN.

- Gaztelania
- Euskara

## VI.– ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOAK (Markatu x batekin):

- Ez dut xede eta helburu bererako beste administrazio batek edo erakunde pribatu batek emandako laguntzarik jaso, ez ekitaldi honetan, ez aurreko bi urteetan.

edo

- Beste laguntza bat ere jaso dut: Zenbatekoa: .....€. Laguntza eman didan administrazioa:..... Urtea: .....

edo

- Beste laguntza bat eskatu dut, baina oraindik ebazpena jasotzeko zain nago. Eskatutako laguntzaren zenbatekoa: .....€. Administrazioa: .....

- Adierazten dut ez dudala jaso diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

- Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomiadunek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.
- Enpresari legez garraio-jarduera behin betiko lagatzeko konpromiso formala hartzen dut.
- Beste garraio-enpresa baten gaikuntza profesionaleko titulua ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dut.
- Eskabideko datuak eta hari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira.
- Laguntza hauek jasotzeko, indarrean dagoen legeriak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 13.2 artikuluan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ditut, hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia daukat, Administrazioaren esku utziko dut eskatzen didanean eta hitz ematen dut horiek beteko ditudala diru-laguntza horri dagokion denboran zehar.

#### VII.– AGIRIAK ESKURATZEKO ETA EGIAZTATZEKO BAIMENA (markatu x batez).

Pertsona fisiko eskatzailearen nortasun-datuak egiaztatzea

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari, eskumenak dituen Administrazioan behar diren egiaztatze edo ziurtatze lanak egin ditzan, baliabide telematikoen zein baliagarri dauden bestelako baliabideen bidez.

Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa egiaztatzea. Organo kudeatzaileak egiaztatuko du automatikoki dokumentazio hau. Hala ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena, eta orduan diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Ukatu egiten diot espresuki organo kudeatzaileari dokumentazioa automatikoki lortzeko baimena.

## VIII.– EGIATZATZEN DEN DOKUMENTAZIOA (markatu x batez):

- a) Eskabide-orria behar bezala beteta.
- b) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, baldin eta hura lortzea ez badio baimendu organo kudeatzaileari.
- c) Eskatzaileak ordezkari bati ematen badio, horren ordezkariak aurkeztu egin beharko du ordezkari bati emateko agiria.
- d) Eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik dagoela egiaztatzeko agiria, noiztik erroldaturik dagoen jasotzen duena.
- e) Azken hamar urteetan etenik gabe, autobusaren bidezko bidaiarien edo salgaien garraio publikorako indarreko baimen baten titular izan dela egiaztatzeko agiria, gehienez ere hiru kopiarekin, Foru Aldundiak emana, edo, halaber, bi horiek batera izatea, gehienez ere hiru kopiarekin.
- f) Azken hamar urteetan etenik gabe, Gizarte Segurantzako langile autonomoentzako erregimenean alta emanda egon izanari buruzko egiaztapena.
- g) Beharrezkoa bada, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa edo baliaezintasun handia aitortua izateari buruzko egiaztapena.
- h) Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Ekonomia sailak ezarritako ereduaren arabera; betiere, lehengo aurkeztu diren edo banku-datuak aldatu dituzten eskatzaileei dagokienez.

## IX.– BEHIN EMANDA, DIRU-LAGUNTZA ORDAINTEKO BEHARREZKOA DEN DOKUMENTAZIOA.

- a) Foru aldundiak emandako baimenaren/en baja egiaztatzeko agiria, zeinetan baja hartzeko motibo gisa jarduera lagatzea zehazten den.
- b) Gida-baimenaren titularra izanez gero, baimendutako gehieneko 3.500 kg-ko masatik gorako ibilgailuak edo autobusak gidatzeko baimenari behin betiko uko egin izana justifikatzeko agiria, gida-baimen berriaren fotokopia konpultsatua

**X.– DATU PERTSONALAK BABESTEIA**

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskabide honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko Jarduera Bertan Behera Uzteko Laguntzak izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Plangintzaren zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz 01010.

Halaber, banku-datuak eta posta komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen hirugarrenen erregistroan gordeko direla jakinarazten dizugu.

Administrazio Publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki irizitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Data:.....

Sinadura: .....